

## ESKALEAK

*Dakigunez, eskale-egun askotxo dira Euskalerrian. Guztiotatik ugari ta entzute aundikoena Santa Agedaz egin oi dena dugu. Neska ta mutil, zar ta gazte, kalerik kale ta baserriz baserri dabilzkizu kantari. Zer pozgarriagorik!*

**Doiñu:** «Aintzaldu daigUn...».

Aldatzik aldatz egunak goian  
artu du bere arkua:  
emen datorkit gazte taldea  
yaukal dutela kantua,  
Deun-Agate-ri eskein nairikan  
bere bezpera lelua.  
Neronek ere kantu ostean  
bearko lasai eskua.

«Illun-abarrez zuen etxera  
gatoz gu alai abesten,  
baserri ontan abegi ona  
dizugu denoi eskatzen.  
Gazte taldeok aterik ate  
oitura dugu berritzen,  
t'euskaldunari zorion utsa  
diogu pozik opatzen.

Ekandu danez ikusi dugu  
alkate jauna goizean,  
aren baimena emen daukagu  
gaur ibilteko eskean.  
Barne pozarren arnas berria  
dizdiz begien ertzean,  
kanta dezagun Deun-Agate-ren  
jai-aurreko illuntzean.

Gazterik zion gure Agate-k  
Jaunari eman bizitza;  
munduko griña, aragi-deia  
ezertako ezpalitza,  
oiñaze biziz zaldun biurrak  
suntsitu zion gorputza,  
baiña Agate-k Jaunari zion  
eskeiñi bere biotza.

Orain bagoaz, etxeko jauna,  
bertso-kantaz zu goratzen;  
barrua duzu urre gorritzko  
dizugu pozik esaten:  
seme-alaba, emazte lirain  
eta zeuretzat nebarmen,  
diru-apurraz zori betea  
dizugu denok guratzen.

Eder zeruan dirdir izarra,  
eder soroan goldea:  
baserri ontan zu zara izar,  
abaro eta jabea.  
Goiko Jaun onak egin bait zaitu  
gure erriantzat moldea,  
zerroren esku bedi guretzat  
zillar sosakin betea.

Lerden elizan aldare erdian  
arri zurizko z,utoiña,  
aren gaiñean beso zabalik  
zeruko Ama Birjaiña;  
umetxo begi-zuriz bildua,  
zeru-biotzez egiña:  
zure emazteak etxe onetan  
dirudizu erregiña.

Pazko egunez jantziko ditu  
sei gona bere soiñean,  
zuri-nabarra azpikoa ta  
gorri bizia gaiñean:  
buruz asmotsu, eskuz maratza,  
oso dalarik jasean,  
etxe ardura eramateko  
ez da beste bat aldean.

Bion frutuak ona jalgita,  
bi mutil koxkor ta alaba.  
Naizta aurrenik bion artean  
izanik naiko ler-kaba,  
azkenik bipil, izerdi aundiz  
utziaz lanez karkaba,  
egiña zagoz dirudizula  
antzetuz lengo erkaba.

Etxe ontako muskil liraiñak  
musua dute zuria,  
matrail zabal —Mi pareko  
guztizko dute gorria;  
begiak bizi, ortzak irtetzen,  
ago txiki ta guria,  
goiz-urratzen fez izpi-jarioz  
dula ezti-orrazia.

Etxeko andre dugu ementxe  
ezpan ertzean par-antza:  
muiño gaiñean lertu agiñik  
bekusazute arantza,  
beso zurian dakartzigula  
lukainka korda aratza.  
Ona eltzean bagenuen guk  
zuen sari konfiantza.

Osto artean illun-abarrez  
txoria dago kantari:  
gure biotzok, idek ataka  
goitiko esker onari.  
Agur! , aurrena, aldendueran,  
etxeke nausi jaunari,  
eta jarraian barne-jauzika  
etxeke andre denari».

